


ZUATZU BASERRIA
A MAILA

AINGERU ZAINDARIAREN BIDEA 33



Egile eta data ezezagunak

Deskribapena

Oinplano nabarmen karratuko eraikina, bi isurkiko estalkikoa. Behe oina eta estalkipeko lehen oina dauzka, zurezko egituraz eta entokatutako harlangaitz hormako fatxadez. Fatxada nagusia eta atzekoa hiru tartetan daude zatituta. Barrualdean, XVI. mendeko dolare gotikoa du. Atzeko fatxadari atxikita, babesaren xede ez den eranskin bat dago.

Babes erregimena

- * Erregimen orokorra:
Plan Berezi honen A babes mailan sartzearekin loturikoa.
- * Berariazko erregimena:
Euskal Kultura Ondarearen Inbentario Orokorrean monumentu kategoriaz sartzeko hasitako espedientearen ondoriozkoa, 2006ko urtarrilaren 31ko Ebazpenaren bidez 30. (EHAA 2006-06-02).
- * Eragindako ingurunea: adierazitako ebazpenean mugatutakoa (grafikoan jasotzen da).